

ALTSASUKO GERTAKARIEN AURREAN ZALDIBIAKO UDALAREN ADIERAZPENA

Azken egun hauetan Altsasun izan diren gertakarien aurrean, eta Altsasuko Udaleko gehiengoak hartutako erabakia oinarri, Zaldibiako Udalak honako adierazpena onartzea erabaki du:

1.- Altsasuko Udalak 2016ko azaroaren 16ko osoko bilkuran hartutako erabakiari jarraiki, "Altsasu" lelopean, azaroaren 26rako 13:00etan Altsasuko Udalak, atxilotuen senitartekoek eta Altsasuko herritarrek deitutako manifestazioarekin bat egitea.

2.- Gure herriko herritarrei bertan parte har dezaten gonbitea luzatzea eta deialdia zabaltzeko eskura ditugun bitartekoak erabiltzea.

3.- Adierazpen honen berri Altsasuko Udalari jakinaraztea.

Zaldibian, 2016ko azaroaren 25ean.



ZALDIBIAKO UDALA
Gipuzkoa